ZIUR FUNDAZIOAREN ZIBERSEGURTASUNERAKO AUTOEBALUAZIO-SISTEMAREN OSTATATZEA ETA MANTENTZE-LANAK BERRITZEARI BURUZKO PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA (ZIUR2025032 ESP.)

1. AURREKARIAK

ZIUR Fundazioaren egoitzan, E-Qualify izeneko autoebaluazio-tresna erabiltzen da, merkatuan autoebaluaziorako mekanismo fidagarri eta kontrastatu bat izateko, eta metodo hori hutsetik garatu beharrean, lan hori azkarrago eta modu eraginkorragoan egiteko.

Lehenengo instalazioa 2019an egin zenez, beharrezkoa da irtenbidearen ostatatzea berritu eta segurtasun-kontrolen mantentze-lanak eguneratzea, zerbitzuak martxan jarraitu ahal izan dezan.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Hurrengo urtean (1) zibersegurtasuneko E-Qualify autoebaluazio-irtenbidearen ostatatu eta mantenu lanak berritzeko kontratua arautuko duten baldintzak zehaztea da Baldintza Teknikoen Agiri honen helburua.

3. KONTRATUKO PRESTAZIOEN DESKRIBAPENA

Beharrezkoa da E-Qualify-ren mantentze-lanak berritzea. Hauek dira bere ezaugarriak:

- **12 hilabetez SaaS ereduan ostatatzea**

Aplikazioa lizitatzaileak kudeatutako CLOUD plataforman ostatatzea. Zerbitzuaren barruan sartzen dira:

- Cloud plataforma
- Aurreprodukzioko eta produkzioko inguruneak
- Aplikazioaren ostatua. Erabilgarritasuna 24x7
- Backup eta babes-kopien zereginak.
- Aplikazioak behar bezala funtzionatzeko beharrezko lizentziak.
- Mantentze zuzentzailea eta euskarri administratiboa

Zerbitzu honetan zeregin hauek sartzen dira:

- Sistema erabiltzean sor daitezkeen arazoak konpontzea.
- ZIUR Fundazioko langileentzako administrazio-euskarria.
- Galdera-fitxategi berriak kargatzea (urrats hori beharrezkoa izango da metodologia aldatzen bada edo kontrolak aldatu behar badira).

Metodologiari eusteko jarduerak hauek izango lirateke:

- Bilakaera teknologikoagatiko kontrolak aldatzea/gehitzea.
- Estandar eta/edo metodologia berrien ondoriozko segurtasun-neurri eta/edo mapaketa berriak aldatzea/gehitzea.
- Dauden estandarren eta/edo metodologien osagarriak dituzten mapaketak.
- Akatsak zuzentzea.
- Beste aldaketa batzuk, ZIUR Fundazioko taldearen irizpidearen arabera.

Donostian, 2025ko abenduren 12ean

ZIUR FUNDAZIOKO ZUZENDARI NAGUSIA

Firmado por PENILLA AZCUENAGA, MARIA (FIRMA) el día 12/12/2025 con un certificado emitido por AC DNIE 004

Maria Penilla Azcuenaga